

Joseba Zubimendi

ZUMALAKARREGI

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Zumalakarregi*, Zubimendi'tar Joseba. Arreta,
1935

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=479>

ZUMALAKARREGI

**Edestiari buruz
zortzi bertso-salletan
eraturako
poematxo**

Zubimendi'tar Joseba
1935

I Gudara zertara...?

«Limosnatxo bat» bertso-doñuakin abesteko

Ene asaben oroitz-arnasa
atoz nerekin lantzera,
milla zortzireun ogeitamairun
gerta zana argitzera!
Eusko zeruko goiargi zabal
atozkit aize ematera!
Aztutze beltzan galdu ez dedin
bertsotan nua jartzera
Ormaiztegiko Zumala aundien
arrigarrizko izakera.

Ikus dezagun orduan nola
zegoan Euskalerria.
Iñoren menpe gaberik, ura
zorioneko garaia!
Baldin Lapurdi ta Zuberoen
nagusi bazan Frantzia,

ona Gipuzku eta Naparra,
naiz Araba ta Bizkaia,
eusko Aberri egoaldea
azkerik zegon guzia.

Ez al diozu erri oneri
min itxurikan arkitzen?
Bere izkera aintzagarria
ara nola duan galtzen.
Ta zertzaz dira Euskalerriko
aundiki oiek mintzatzen?
A...! Españiko bakaldun zarra,
Fernando, omen dago iltzen
eta Isabel edo Carlos, zein,
jarriko duten agintzen.

Zer ajol dio euskaldunari
Españiko bakalduntza?
Zergatik ango gauzak utzita
ez begiratu onuntza?
Napoleonen gudalozteak
bialdu ziran aruntza;
baña aundikiak Españi kutsuz
dauka geroztik biotza

eta, tamalez, ortikan dator
Euskadiren eriotza.

Lengo Oñaz ta Gainboak kalte
aundik zituzten ekarri;
orain Madriden bat edo beste
bakalduntzarako jarri
ardurik ezta, euskaldun auek
zertan dabilta ain larri?
Nolatan daude goiki gizonak
gudan sartzeko egarri?
Ene Jainkoa! Itxu dabilta!
Ene, au bai negargarri!

Utzi besteren erriak orain
ta batu eusko guziak!
Ez al zaizkitzu oroitzen gure
abenda zarren auziak?
Arrotzen oñak ez dituztela
zapaldu gure mendiak
ta erromatar, godo, maomar,
ludi guztiko nausiak
izan dirala, eusko indarrez,
beti ta beti ausiak?

Oroitu zaite bizkaitar orok
Arrigorriagan egiña,
oroi berriro, Orreagan nola
zuten egintza berdiña.
Ordun ziñopak odolez zuten
gugatik busti lurgaña.
Eutsi ba orain! Etzaitez izan
ero ta buru ariña;
utzi zaiozu konpon dedila
nai duan eran España!

Bañan zer dakust? Ara euskoak
atzipetuta, ustetan,
beren erria galzorin dala.
Egoak damaz oñetan!
Zeñek orrela iruzur ditu?
Zeintzu dabiltz lan oietan?
O! Aberria jartzera doaz
negarte samin beltzetan
ta berak gero eskako dio
kontu zorrotza benetan.

II

Emen degu gudalburua

Doñu errikoa

Illunabarra degu
argia gordetzen
dijoala, ludia
beltzez zaigu jazten.
Iruñako arresi
zubia da jexten
eta Arga ibaiorutz
ara zein datorren.

Burua makurtuta,
lurrera begira,
gainjanzkien eskutuz
Irurzun urira
zein dator apalkiro?
So bere janzkira!
O! Zumalakarregi
dator bere errira!

Iruñan utzi ditu
bere emaztea,
alabatxo kutunak
ta ongi izatea.
Zergatik atsegiñen
truk artu nekea?
Zer ote dan erria
maite izatea!

Ortxe bide erdian
dauka beor bat zai;
arin doa gañera
ametskor eta alai.
Esporeak sarturik
tximista laxterkai
dirudi. Emen degu...
Ongi etorri, bai!

Aspalditik zai zegon
zure Aberria
ta zenbat maite dezun
emen agiria.
Zure izen ospetsu

ta aintzagarria
guziak maite degu.
Ongi etorria!

An Zumalakarregi!
-dio gudozteak-
Ongi etorri! Gora
euskotar semeak!
Azke izan nai degu
emengo jendeak.
Zenbat pozten gaitun zu
emen ikusteak!

Oiartzunak berrizten
du alde danetan
gudarien zantzo au,
zoko ta gañetan.
Ongi etorri! dio
otsak mendietan
Ongi etorri! ibaiak
ur eresietan.

Bañan gizon artean
beti dago griña

txarra ta alkar ongi
ikusi eziña.
Iturralde zan lengo
buru agiriña;
onekin ezpatzea
zan gauza jakiña.

Bañan euskaldun orok
Zumala goguan
ibiliaz, daukate
biotzen barruan.
Orrela Iturraldek zer
zezaken orduan?
Agintzaren burua
bertan utzi zuan.

Guda mutillen buru
da gure gizona
ta eusko gudaria
amesten dagona
ez da Carlos bakaldun
ajola zaiona,
baizikan irixtea
euskal zoriona.

Bere semetzat laxter
da arro Ormaiztegi,
ospatsuena bai du
Zumalakarregi.
Edestera nuana
bazaizu latzegi,
jakin zazu guzia
dala emen egi.

III

Guda asieran

Kerexetaren «Oreaga» olerki neurriz.

Zortzireun mutil ditu gudarako zutik,
anitz etorri zaizka Napar ingurutik.
Guda janzkirik ez ta goseak aulduta,
otzak, kemenik gabe, oñak odolduta,
dijoaz nastuta;
bañan oñez dutela Zumala aurretik
beraren bildur-ezak ditula arnasten,
bulartsu, arin doaz guziak abesten.

Adiskideak ditu Naparru mendiak,
zuaitz, erreka, zulo, esi, elorriak.
Etsaiak nai badute berengana eldu
lenen areio auek bear ditu kendu
edo ta aldendu.

Bañan eusko semeak dabilzten larriak!
Su-izkillurik ez ta, dunak, balarik ez...
Berentzat lirake, ba, nun diran jakitez!

Ona inutil gazte bat Zumal-en aurrean,
arrenka, sar nairikan bere gudoztean.

-Zertan joputu nai dek? -egin dio galde.

-Zaldikari nai nuke, baldin al baleike...

-Zaldi gabe gaude.

-Ongi da -ta aldegin du. Illunabarrean
emen dator berriro. -Ara ne zaldia,
etsaiari kentzean galdu nintzan ia!

Mutil onen antzera zenbat ote datoz...
eusko biotzak orain su ta gar bai dagoz.
Odol margo txapela dunak egiten du
armarik ez badauka dagonetik kendu,
naiz an odol galdu...

Etsaiak gaur gabean asetzen daude loz.
Auek bai deukatela guda tresna pilla.
Orain iluna degu. Goazen bada bila.

Bañan illun beltzean nolaz ezagutu
alkar eta etsaiak gutatik bereztu?
Tamala litzake ba, usterik ezean,
nastuta anaien bat gauen ilunpean
erailtzea guk an...

Ara gu berezteko gauza aukeratu!

Jarri ditzagun danok jantzi beltz gañetik
azpian damazkigun alkandora zurik...

Zer dakuste begiok? Zer dago Zubirin?

Illunpe lor onetan zer dabil arin arin?

Or zomorro zuriak dabilta biraka...

Ene, izkillu otsa! Ara karraxika...

Jendea korrika...

Orain turuten otsa entzun da belardin.

Alkandora zuriak onuntz azkar datoz...

Zubiriko erria ixildu da geroz.

Algara lasaituak datoz mendin gora,

laxter datorgu otsa geronen albora.

Jesus, zenbat ixkillu! Zenbat kutxa bala!

Gizonak bizkarretan eziñik zama ala.

Pozik da Zumala

ta esker itz xamurrak datorzki ahora:

-Egintz ontan mutilak ongi irabazia

dezute nere eskerra ta atsedan luzia.

Eta, atsedentzeko, ez da ordu txarra,

geienak badezute orretxen bearra.

Zuen loa zaitzeko, izanik eun begi,

Ormaiztegiko Tomas Zumalakarregi
emen dabil argi.

Ezpañetan dabilki errekin belarra,
urduri da gizona zuen inguruan,
badu guda garaitze asmon bat buruan.

Berrogei ta bost urte damazki gañean,
oldoz garbia ager du kopet labañean.
Bizar ta buru-illea anai besarkatzen,
txapel gorri zabala burua estaltzen
ta andik kulunkatzen
zillarrezko borla bat, dizdiz jostatzean,
Larruzko zamar beltza ertz gorriarekin,
loki apañak ditu urre kakotxakin.

Esporeak dirdiraz, ezpata gerrian,
eder agertzen zaigu gabaren erdian.
Sorbalda zabala du ta lepo lodia,
ille beltz antzekoa, urdintsu begia,
itzal bekokia.

Itz gutxiko gizona, gudan ta pakean.
Asmo berrin bat beti dabilkila burun,
par gutxiko gizona, beti dabil itun.

Bañan euskal semeak buru daukatena
zer da, azti, sorgin, guzi lezakena?
Bere abotsen deiaz, bildurrak aztuta,
eriotzaren billa dijoaz sututa
denak itxututa
ta begiratu utsez menpetzen du dena.
Salatari bat eldu da dagon tokira
ta ixillik esan dio zerbait belarrira.

Arratseko nekeak azpiratu gabe
goiz izpiak arki du buruaren jabe.
Gizonak esan dio: -Etsaiak or gora
jate gauzak damazki, janzki ta bolbora...
-Ordun goazen ara,
guretzako ditugu astinduz goi ta be!...
Goiz deia jo baño len zaldizko mutillak
mendian gora doaz eskutuz ixillak.

Burni makil zorrotzak dizdiz argiak,
beso billuz gogorak bular sendoakin,
basatien antzera zantzo ta aoiuka,
zaldiak irrintzi ta guziak orruka
dijoaz burruka,
ikusia bai dute etsaia zamakin...

Axut! -dio Zumalak- Ekin ortik gogor!
Bertatik ekin gabe ez da gelditu iñor.

Ta berrogei basati aiek zaldietan
berreunen aurka doaz gudu aldi ontan.
Au ezpataren otsa! Au alkar jotzea!
Ara lurrean bat or, an doa bestea...

 Ori jokatzea!

Zein ote da nagusi gaurko gudaketan?
Euskoak atzeraka datozte aldentzen...
Ene, aldi onetan bai dutela galtzen!

Baña norena degu, ausirik guzia,
bakarrik aurreraka zaldizko zuria?
Ai! Zumalakarregi aurrean jarririk,
Axut! -dio berriro- ezpata igiturik.

 Ez geigo larririk;

ura an ikusita gurea da auzia;
napartarren odola jarri da irakiten
ta berriz aurreraka diote ekiten.

Andik laxter dijoa euskoen aldera
etsaiak berentzako zuten zama bera.
Guda-mutil berriak badute fusilla,

zarrak janzki berriak. Zenbat bala milla!

Joan bai dira billa

zeuden lekutatikan arin ekartzera.

Eusko zaldikarriak zein kementsu diran....

Ez da jaio besterik egundo lurbiran!

Orrela du Zumalak gudozte geitzen,

bene esana zintzoki bai dute egiten.

Gutxitikan asita, gero ta geiago,

gaur guda-mutil salla ugaria dago

ta indartsuago.

Ara bi gudalozte alkar purrukatzen.

Zergatikan ordea dabilta euskoak?

Beren ustez zaitutzen asaben Fuegoak!

IV

Indartu dira euskotarrak

«Basarri» bertsolariak oitura dun doñuz.

Asieratik gudari gutxi
bazegon Euskalerrian,
ikusi orain Zumala bidez
ozteak, zutik, sallian.
Zenbat nekekin bilduak ditu
gose utsaren erdian!
Gaur Españiko gudalburuak
maiz jartzen ditu larrian.

Liberal auek partetan beti
azaltzen dira nagusi;
baña gureak guda-lurrean
geien alditan du ausi.
Orain Zumala apur dutela
diote; bañan ikusi,
esan ondoren, bere aurrean
nola dabilzan igesi.

Gaur Espartero da etsaien buru,
eusko saltzalle zitala!
Ustetan bada eusko mutillak
mendi onetan dirala,
ementxe dator izugarrizko
gudozten jaberik dala
eta arriturik ikusiko du
mendia utsikan dagola.

Bañan lasaiki baldin badago
alpertz atsedenetan
laixter euskoak gañean ditu
usterik gutxienetan.
Amorraziaz, nekatu arte,
beti gezurren ustetan,
zenbat izeka egin dizkio
Zumalak leku auetan!

Gazteitzen sartu nai du Zumalak
eta laxterka dijoa.
Bai sartu ere egiñik ordun
beti lez bere gogoan.
Gaurko ontan ere ongi utzi du

Espartero gizajoa;
bertan etsaiak erail ondoren,
or guda tresna naikoa!

Zer gertatzen da liberaletan
ainbeste buru aldatzen?
Bein Rodil dala, Valdes urrena,
gaur Oraak badu agintzen,
biar Linares edo Cordoba
ordezko diote jartzen.
Etsai guziak erraz bai ditu
gure Zumalak menpetzen!

Gudalbururik izentsuenak
dakarzte beti onuntza;
naiko jendea guda tresnakin,
berak nai aña dirutsa
izanagatik; alare beti
euskoentzat nagusitza.
Guda izkillu ausartsuena
bai da euskaldun biotza!

Emengo seme ezikaitz auek
nolaz orduan garaitu?

Ainbeste kalte damaion guda
nolaz Españak ainaitu?
Bere ospea, galtze onekin,
zapalduta ikusi baitu.
Orain eskeintza zoratzalleak
egiñaz ausiko ditu...

Or Espartero buruzagia
Ernanin nun dan azaltzen.
Ta Fueroa zainduko dula
ara nola dun agintzen.
Esaten digu iñor Españin
aurka bazaio ausartzen
lenengo bora izango dala
ezpatarekin gordetzen.

Lengo eskeintza alperrikako
izandu dala ikustean,
Zumalan anai Mikel bitartez,,
dirua nai dun añean
eskain diote, Euskalerritik
aldendutzeko ustean.
Bañan orduan saltzallerikan
etzan euskoen artean!

Etorkizuna margo beltzetan
diote gero azaldu;
Emazte ona urruñen dauka
alabatxo bat du galdu.
Min-aldi onek gure Zumala
garaituko ote al du?
Eusko gudari zintzoa iñon
ez da ezergatik saldu!

Ukatze onek jarriak ditu
amorruez irakiten;
su, odoletan alde guziak
geroztik dituzte jartzen.
Arantzazuko eliz ederra
ara an sutan kixkaltzen.
Orra Jauregik bere izena
nolatan duan zikintzen.

Olazarren gaur zer gudu aldi
bildurgarria goizetik!
Egun sentia baño len orra
mutillak erne ta zutik.
Larrainzarretik, Etxalartikan

Lekaroz ta Errazutik
guda mutillak datoz laxterka
alderdi guzietatik.

Irurita alde ta Elizondo
berek ditu Zumalak;
mendaitz goienak, muño gorriak,
arkaitz, aritz ta makalak,
etsai oztea zaitu itxuran,
zutiñik, bañan argalak
daude, egunero zulaturikan
euskaldun etsaien balak.

Egoardi baña len asi dute
biak turuta soñua.
Kañoi dunbotsa gortu zorian!
Aotik darion sua!
Buru gañetan nabaitutzen da,
bala maltzurren txistua;
noiznai illikan mendian bera
gudarien bat dijua...

Orain euskoak eraso dio
adore biziz jarrita.

Ikaragarri ango burruka!
Bañan atzenik etsita
an doa iges arerioa,
bere izkilluak utzita,
edo geldi da gajoa illotzik
bertan begiak itxita.

Bidaso ibaiko zillar margoak
odolez gorritu dira.
Zenbat itzulti eror diraden
odol gorrian erdira!
Igeslariak sartu dituzu
itxurik amildagira
ta odol gorriz nastuta doaz
ibaien leku amaira.

Gaua datorgu. Zenbat bizitza
bertan gelditu dirala!
Lurra illotzez ereinda dago...
Auxen bai gauza tamala!
Gaur eguzkiak ikusia du
giza-gorroto zitala
ta lotsaturik illunpetara
igestu da bereala.

Baña inguruan Carlos errege
agertu berrien jaiak
ospatzen dira bitarte ortan.
Gertatze negargarriak!
Euskoak gudan ixurtzen beren
zañetako odol gorriak
ta arrotz arentzat jarri dituzte
jostatze pozkor alaiak...!

V

Gorrotoa

*Bilintxen «Juana Bixenta Olabe»
doñuz abestu bedi.*

Euskalerriko eliz batean
otoitzak egiten dauden unean
lekaide batzuk, anker jendeak
erail dituzte, biotz gabeak.

Ene Jainkoa!

Geroztik ziñezpen duan euskoa
geiago suturik gudara doa.

España agintzen daudenak buru,
Mina digute orain aukeratu
guda zital au amaitu nai-ta;
eusko mendien ezagun baita
ta kementsua.

Orain badabil naiko zartua
maltzurra da ta entzutetsua.

Leno Zumala mendeko izanik
ikasi zituan bere artezik.
Orain dijoaz alkar neurtzera.
Zar jakituna da Mina bera
ta azeri zarra;
bañan Zumalak legoien garra
antzera dauka gaztedi indarra.

Berriz gudako tresna eskasin!
Nun eta nolatan azkarrik egin?
Baztan menditan ta Etxalarren
arkaitz zulotan ara egiten
ontako olak.
Antxe sutunpak, sutautz ta balak
egingo ditu gure Zumalak.

Ingurutako eliz kanpaiak
mututu dira, ta beraren gaiak
labe gorritan daude suturik.
Geroxeago danak urturik,
an guda tresnak!
Sutunpa berri, bala zuzenak,
gudan garaille jartzen direnak.

Azaroa da. Negua bertan.
Gudua irrintzika mendi gañetan.
Naparruako Villafranca an
dago arrorik axut aupadan.

Emen axutka?

Ekaitz antzera txistu orruka
an dijoazte. Ura burruka!

Elizan gorde dira aldezleak,
berekin dituzte sendi maiteak,
Sunpaka gogor eliz barrendik,
erantzun berdiña zeukaten lendik!

Ene, zer sua
itsas dioten! Laxter dijoa
goitik lurrera eliz osoa!

Kupitu zaigu Zumala bera
eta badijoa aldegitera;
bañan an dator Carlos aginduz
austeko dana odol eta suz.

Oroitz ituna!

Suzko mingaňak ta ke astuna,
argi gorritan gaueko illuna!

Barrun daudenen aur karraxiak
eta emakume larri antsiak
zein ez luteke biotz-berako?
Bañan erregek esan dulako
su eta garrak
badirudite inpernutarrak
geituz ta geituz. Ango negarrak!

Zumala dabil errukituta
eta galzoriak arrunt aztuta,
bere aginduz, aurtxo andreak
azka dituzte eusko jendeak.

Gure gizonak
ager dituzte biotz nai onak
ta urko maitasun sustrai sakonak.

Egun auetan zaldikariak
arroki dabilta sutan jarriak.
Euskotarrena gogor axutka
ta liberala andik itzulka.

Eta iñondikan
ez dute ematen erantzunikan...
Ez bai daukate ausardirikan!

Baña ausardia Minak badauka
Naparru semeak iltzeko sailka.
Lauzko mendian, erdi gordeta,
sutunpa zar bat, ausiz beteta
arkitu dute.

Zeñek aruntza eraman ote,
ta besteak nun gorde dituzte?

Aurreko gabez mendi artatik
sua zerioten eten gaberik.
Baña nun dira kañoiak ordun?
Lurpean gorde badirade, nun
dituzte sartu?

Iñon zar ura beste ez da agertu,
geion aztarnik ez dute sortu.

Mendi semeak bere aurrera
ekarriaz egin du galdeera;
bañan ez dio iñork erantzun:
ango gizonak ez dakite nun
gorde zituzten
ta balekite ez dut sinisten
esango zanik. Il naiago len!

Zigor minkorrez estu-azita
batok esan dio gaixo jarrita;
-Itzaiak gera eta beiakin
igo ginduzen; bañan ez jakin
zein lekutara
begiak zapiz itxutuz, nora
ikusi gebe, jo gendun gora.

Ordun amorruez, ikusirikan
etzeukala ezer jakiterikan,
izkilluz erail zeritzatela
agindu zuan, suz, beriela
ta bei gaixoak,
gizon laguntzan zartutakoak,
berdin il zitun, zital gaixtoak.

Ta bitartean iritxi-berri
Don Carlos an dabil erririk-erri
aintza ta jaiak nunai dirala.
Ustetan ote bereizat dala
Euskalerra?
Euskoak maite du Aberria
ta eskein dio duan guzia.

Jaitan igaro da Egoarri
ta orain iritxi da Urteberri.
Etsedenean Urretxun daudez
iñon gudarik ez balego lez.

Bitarte ontan,
Arrasateko inguruetan,
ara amar milla liberaletan.

Bergaran bildu dira goizetik
ta ara nun datozen mendi gañetik:
Carratalá or, Lorenzo albuan,
begira Jauregi nundik dijuan
ta Espartero.

Danak batean bilduta gero,
onuntza datoz indartsu, bero.

Zumalak artu du Ormaiztegi,
bere erria du eta maitiegi
besten eskutan erraz uzteko.
Ekin diote emen sartzeko
bañan alperrik.

Orretarako ez dute indarrik.
Ez da sartuko arrotz ankerrik!

An Gabiriko mendien gaña
Anzuolatik Lierni aña
dago etsaiez arrunt beteta.
Eusko mutillak jaiki dire ta
ara or gertu.

Etsaiak arroki badira agertu
bertatik nai du gureak neurtu.

Euskotarretan zaldi zuririk
nola ez dago bakar besterik?
Zumala dua bere gañean.
Beste guziak azaldutzean
illak dituzte,
beti Zumala zalarik uste,
aide guzitan bera dakuste.

Eraso dio dunbako otsak.
Astintzen dira gaurkoan otzak!
Gipuzkoako gizon sendoak,
entzun araziz guda zantzoak
or nun doazen.

Tiroka dabiltz an eta emen.
Ene zein gogor ari diraden!

Gureak iru milla dirala
larri dabilte orain Zumala;
baña Iturralde naparrarekin
Buruntzatican laguntzarekin
ementxe dator.

Oi, zer burruka dabilkiten or,
orain bai guda eraso gogor!

Ara Lorenzo orain igeska,
kutsutu zaie bildur ta kezka.
Esparteroren mutil bapoak
zertan dituzte orain zankoak?

Laxterka biziz
itzulka doaz ikara larriz,
euskoa atzetik jarraika berriz...

Zenbat gorputz-il alkarren gainka,
bele beltzak an dabiltz usainka.
Gaur erasoak zer su ta garra!
Zumalak dauka bere zamarra
zulaturikan
eta izkilluen suz errerikan.
la bizitza zun galdurik an!

Urren egunaz leio batean
dago Zumala pake-pakean.
Guda mutillak dabiltz, an-emen,
batzuk pelotan leiaz jokutzen.

Au gentza itxura...

Bañan zar da ango kanpai soñu ura?
A! Euskadiko antxin oitura...

Din, dan... eskillak; din, dan... berriro.
Zer entzuten da orren argiro?
Din, dan... oiartzun. Egoardia!
Ona geldirik pelotaria...

Kendu txapela!

Agur Miren bat otoitz ta bela
pelotan darrai, leno bezela.

VI

Negar ta odola etengabea

Xenpelarren bertso neurritz.

Orain Minaren adur izarra
jetxiaz dator itzaltzen;
ainbeste odol, ondapenakin,
ospege zaigu gelditzen.

Napar semea izanik
etzuan izan kupirik
bere anaiak zigortzen.

Minan izena Euskalerrak
izki beltzez du oroitzen.

Liberalen buru-nagusi
gudatsein, dagon gizona,
Valdes, datorgu. Diotenez da
buruzagirik onena.

Pozik dago Zumala
ikusiz bera dala.

Au bai da beti dagona
esanaz, nunai ausiko dula
Españi etsai arrona...

Urte giroa otz dago oraindik;
elurra noiznai goitikan.
Aterpe on bat Amezkoa du
egotekotan geldikan.

Emen balarik gabe
ere beti da jabe;
ez dago iñun kezkan.

Etsaia onuntz ausartzen bada
ez du izango onikan.

Bañan ez dauka luzarorako
lekuan atsedentzerik;
Buruntza igaroz, Valdes an dator
jarraituz bore atzetik.

Dena birrintzekoa
debilkiten gogoa!
Mina zitala zalarik,

bera bañore odol zalego
datozte biotz gaberik.

Amezkoatar sendi guziak
igeska ikaratuta,
bei, arkumeak, ardi, beorrak
al dan bezela bilduta;
aurrak lepo gañean,
janak saski betean,
etxeko tresnak artuta,
ero zorian doaz urruti,
itxaropena galduta.

Oñaze latza ematen digu
amezkoatar jendeak...
Amoña zarrak, illobarekin
arintzen ditu nekeak.

Ara aurtxo txikia,
orain jaio berria,
negar gorritan goseak!
Gazteak itun, zartuak makal...
Orra gudaren kalteak!

Zumalarekin andre zartxo bat
ona nun zaigun agiri;
semetxo batek laguntzen dio
eskutik bere amari.

-Zer nai dezu andere?

-Jauna: or ditut nere

beste seme bi, ta zuri

eska nai dizut beste au ere
artzeko zukin gudari.

Arritu zaigu gure gizona
eskaera au ikusiz;

eskertu dio amari bere
gogo eta, errukiz,

dirutan sarituta

mutilla artu du ta

gudariak ermo jarriz,

ama igaro du buruzagien
ospeak artu araziz.

Euskoak orain Eulaten daude
gorderik arkaitz tartean.

Zumala aginduz banatu dira

mendi azpi ta gañean,
ibar eta zulotan,
inguru guzietan.

Anitz euskaldun danean!

Ta zai daudezte, Valdes ikusiz,
jausteko ausar betean.

Or dabil bera onutz-araka
baso tartean galdurik;
jatenik gabe, egarri-gosez,
ezin arkituz etsairik.

Zenbat ditu atzean?

Eta zenbat ertzean?

Ezin artu du itxurik!

Eta nora jo? Atzera? Aurrera?
An dabil atzipeturik!

Onuntza jota, usterik gabe,
ara zauritu sei mutil;
aruntzik berriz, bala zorrotzaz,
gaur dizkiote amar il.

Ageri ez dira-ta

nundik, orde, tirata?

Etsaia nundikan dabil?

Inpernutarrak al dira edo...

Au bai duala katramil!

Zer dabil orain Valdes, nastuta?

Nurutz dijoa ain larri?

Mendi auetan ez lezakela

egin ezertxo du igarri.

Ta ziara aulduta,

oso ikaratuta,

goseak eta egarri,

Lizarra aruntza, buru makurrez,

dijoa gaur lotsagarri!

Bañan euskoak ez dio utzi nai

orrela, lasai, joaten;

lurre erraitikan, goi eta betik

bat-batean dira azaltzen.

Ura bai ixkamilla!

Illotzik daude milla

ta alare, beti jarraitzen

doaz gureak, iges duana

nunai pillaka zauritzen.

A! Nola diran ariñeketan
Lizarran sartu biziak!
Burutik bera loi ta odolez
datozte danak josiak.

Arnas gabe, errenka,
okertuta, arrenka
dabiltza orok ausiak.

Zer astiñaldi artu daten gaur
liberal matit guziak!

Amezkoa du gure Zumalak
jarri berriro pakean
ta Gipuzkora bere oztea
ekarri du gau batean.

Erri nagusienak
nai dituzte berenak.

Tolosa dauka bidean,
Eibar, Ordizi eta Bergara
artu ditu une batean.

Gaua sartu da. Otza uxatzeko,
an-emen sutzar aundiak;

badirudite sutan daudela
ingurutako mendiak.

Zer irudi ederrak,
noiznai zuzen, okerrak
ditun ango su biziak.

Mendirik-mendi, alkar agurtuz,
an suzko mingain gorriak...

VII

Amai mingotsa

Doñu errikoian.

Negua itzulka dabil eta Udaberriak
jantzi apañez jarri dizkigu mendiak;
lore lurrin usaia, zeruen urdiña
guzia da guretzat orain atsegiña.

Arnas eta indar berri sortzeko giroa!
Zuaitz ostro berriak loratutzekoa!
Ta Zumalakarregi alai bearrean,
gaxorik arkitzen da indar makalean.

Zer du gure gizonak aulik arkitzeko?
Zer gerta osasuna orrela galtzeko?
Gudako min nekeak ez menperaturik,
nolatan orain dago gaixo ta itunik?

Egundo galzorian jarri ez diranak,
guda-lurretik iges eskutun daudenak,
agintzarako leia beste ez dute-ta
bekaitzkeri zitala diote gordeta.

Min ez dio emango Batzorde lagunak
saltzea, here bizkar goian jar ditunak?
Naigabe onek dauka samiñez beterik,
aien asmo okerrak jar dute gaixorik.

Irrikitzen ez dago Carlos bakalduna
noiz Madriden sartzeko datorren eguna?
Españin jarririkan maitasun guziak
zeren ajola dio euskoen auziak?

Ta Zumalakarregik zer dio gai ontan?
Anitz oldoztua du gau ta egunetan:
Españi bakalduna Carlos bezin azkar,
euskoentzat Zumalak azkatasun dakar.

Carlosen ametsa da Bilbao artzea
ta ango guda izkilluak beretzat jartzea.
Bañan Zumalak ez du ura nai oraindik,
gauza onik ez dator, bere ustez, andik.

Lengo naigabeaz gain, orain aginduak
oztu ditu Zumalan aginte asmoak;
buruzagitza laga du egun artatik
ta bere etxera doa, samiñez beterik.

Bañan Carlos zer degu Zumalarik gabe?
Zein da eusko mutillen gogoaren jabe?
Deitzen dio berriro eta txurikatuz,
Bilbaorutz dijoa Carlosen aginduz.

Ikus orain Zumala ixil, buru makur.
Bilbaon sartze orrek eman dio bildur.
Badirudi biotzak esaten diola
zauri bear dun bala Bilbaon dagola.

Gudalozteak berriz, ausardia gainka,
dijoa abestuz, irrintzi, orruka.
Bilbo! eskeñitako atsegin lekua,
ainbeste nekepean amestutakoa!

Ikusi dute uria. Zein eder etxeak!
Ai, zein polit dirdiraz bertako dorreak!
Zer lilluragarriak ageri diraden...
Eup! Laxter dira berak errian barrenen!

Bañan bilbaotarrak ez daudete lotan;
sutunpak or dituzte jarriak albotan.
Lau milla gizon daude gertu gordetzeko
edo ta beragatik illik gelditzeko.

Egun sentiko laurak dirade oraindik
eta danbor jotzea, turuta nunaitik.
Tunpaketa asi da Begoña aldean;
tunpaka erantzun du Bilbaok unean.

Sutunpak asi dira arresiak austen:
bertako gudariak zuloak estaltzen.
Iñoiz erortzen bada gizonen bat illik,
bere lekun jartzen da beste bat ixillik.

Eguzkien beroak daukazki kixkaltzen,
egarri-oñezeak mutillak itotzen.
Ez dio ardurarikan! Ekin berriz gogor,
Bilbao menpetzeko garaia badator!

Bañan gaua eldu da eta Bilbao ori
ez da euskoen mende oraindik erori.
Sutunpen ots burrunbak ez dute lagatzen
gau guzian iñola lorik ere artzen.

Ara berriz eguna argi eta alai.
Gaurkoan bai gurea izango dala, bai!
Egaka gañean da bala txistu otsa,
zenbatek arkiko du orain eriotza!

Bañan egun au ere aurrera doala
ezin sarturik dabiltz Bilbaon iñola.
Amets au egizteko biderik bai al da?
Bakarra ta mingotsa: arresik asalda!

Zeintzu jun bear duten egiñik sosceta,
guziak batasunez aurren nai dute-ta,
naparruko mutillei jazoa zaiete
ta amorruz irakiten gerturik daudezte.

Ona tarari otsa! An doaz aurrera!
Or lenengo mutillak zaurituz lurrera!
Nora dijoa napar bulartsuen pilla...?
Eriotzaren truke azkatasun billa!

Izkilluz jausi dira mutillik geienak;
atzera jo bearrik dira beste denak...
Itxaropenez Bilbo mutillak ausartu
besterik gaurko onetan ez digute lortu.

Beste gau bat berriro supunpan otsakin,
iñondik ere lorik ezin liteke egin,
ta atsedenikan gabe nekeren-neketan,
ikus urren eguna nolaz argitzen dan.

Larrinagan kañoiak gogor ari dira,
eusko mutil errenkak, zintzoki, begira.
Boluetatik Zumalak ditu ikusiak
ta arinka an datorgu arrituz guziak.

Andik onera dabil taldeak ikusten,
etsaien suak ez du iñola bildurtzen,
Begoña jauregia dago gain-gañean,
bertaratzera dua oin alegiñean.

Leiora irten zaigu eta aginduak
ematen ari dala, ango ke ta suak!
Adiskideak deitu diote sartzeko;
bañan oz da jaioa iñun bildurtzeko.

Eudi jasen irudi balen ugaria...!
Beren artean zutik dago gudaria.
Ene...! Zabuka orain, zer du ain nekean?
Bala batek zauritu digu belaunean!

Kentzagun azkar ortik! Nun sendagilea?
Tximista bezin azkar, alde billatzea!
Jarlekuan etzanda, aurpegia zuri,
ona gure Zumala non dagoen eri.

Zertan ausartu zera balaren tartera?
Galzorira nolatan ortik irten zera?
Ene negar gogoa! Au biotz zartada!
Gizonikan onena gaur zauritua da...

Ona sendagilea. -Zer du? Gauz aundia?
-Ez du galduko onekin oraingo z bizia.
Boluetara orain, balaren tartean,
damate min zorrotzak arturik bidean.

Zumalak anaiari dio bereala
Zegamara laxterren eraman zezala.
Oetxo ibilkarian mutillak artuta
atsege damakite guziak, minduta.

Durangon geldi-aldi labur bat egin du
ango gizon andreak egiñaz samindu
Zenbat begi malkotan busti ote dira!
Atsekabea sar du euskaldun errira...

Ormaiztegin berriro zaizkigu gelditu,
sendikoen oroitzak antxen berri ditu.
Jaiotzeritik gora Zegama aldera
damakite astiro, itun ta minbera.

Ona oean sartu ta sendalariak
diotenez, ez dute larririk zauriak.
Bañan gero ta geigo makaltzen dijoa,
sukarrak eldu dio auldurik gajoa.

Ara burzoratuta gudua zuzentzen;
nundik jo, nora kendu, diote agintzen.
Buru biotz aietan beti dagon garra
Euskadi azkatzea da bakar-bakarra.

Ekarri dizkiote gaur elizakoak
ta artu ditu beroki eri gizajoak.
Kanpaien ots illuna ari dan garaian,
zeruratua zaigu atsedean erdian.

Ai, Zumalakarregi, gizon biotz-bera
Euskalerra maitale sutsua izan zera.
Aintza ta omen zure izen ospetsua
euskoen ikasbide agertutakoa!

VIII

Ondoren

Asierakoen neurriz.

Eun urte dira il zitzaigula
euskal semerik onena;
eskein daiogun eunki-urtean
bere erriaren omena.
Txirorik iltzan, nai utsarekin
aberats bizi zeikena,
iru zaldi ta txanpon batzuek
ludian laga zun dena.
Aintza dezagun euskaldun orok
Zumala aundien izena!

Eusko mutillak ikusirikan
Zumalaren soin illotza,
gudara doaz egundo baño
berogo izanik biotza.
Bost urte barru, an nun ager dan
euskaldun miña ta lotsa!
Buruzagitzat autatua da
Maroto zital arrotza.

Auxen bai dala Euskadirentzat
aldi larri ta mingotsa!

Milla zortzireun eta ogeita
emeretziko urtean,
ouskal mutillak ageri dira
Elosu inendi gañean.

Bergara urira eltzerakoan
diote ao betean:

-Salkeria da! Galduak gera!
Gudakin ausi ezean,
atzipetuta garamazkite,
jarririk arrotz menpean.

Bergara aurreko ibar zabalari
ara bi gudal-ozteak;
itunik daude eusko mutillak,
itxaropenik gabeak.

Erdin Maroto ta Esparterok
egin dituzte pakeak,
besarkatuaz, zin egiñikan
antxin Fuero gureak
berak gordeko dituztela ta
saldurik euskal semeak.

Fuero zaitze ango eskeintza
zertan geldi da geroztik?
Nun dira gure asaben lege
eta oiturak ordutik?
Estu lotuta ezin azkatuz
gaude arrotzen menpetik.
Ostu ziguten gendun guzia...
Zoritxarra ager nunaitik...
Ez da gelditzen ezertxo ere
asaben Fueroetatik!

Ordutik eusko zerua zegon
illun astunez beztuta,
negarrez eusko seme guziak,
Euskadi oso illunduta,
gure izkera ia galdua
arrotzarekin nastuta.
Illun biotzak, illun sendiak,
itxaropena galduta,
abenda zarren edesti bera
aztutze beltzan sartuta.

Bañan Goi-Jaunak kupitu eta
agertu zuan ortzean,
izar dizdikor argi zuri bat
Àbandoko gain-gañean,
Arana Goiri'tar Sabin jaio
zan zoruneko unean.
Zabalik dago bere ikurriña,
Euskalerra dan-danean
eta indartu da itxaropena
geroztik eusko lurtean.

Jaiki biotzak euskal semeak!
Itxar gaitzen gaur danak!
Ikurritz done pean jarrita,
aztu lengo neke-lanak!
Lenen zatia JAUNGOIKOA du
ta guzien gain dagonak
maiterik gaitu ta LEGE ZARRAK,
asaben lege sakonak,
azkatasuna bidetik dakar
Euskadiri zorionak.